Ondarearen Europako Jardunaldiak 2023

Jornadas Europeas del Patrimonio 2023

# Ondarea bizirik!
# Patrimonio vivo

**Informazio bilera**

2023/04/17 - 10:00

Koldo Mitxelena Kulturunea (Donostia)

**Reunión informativa**

17/04/2023 - 10:00

Koldo Mitxelena Kulturunea (Donostia)



European Heritage Days
Journées européennes du patrimoine

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

ETORKIZUNA ORAIN
Es futuro

## 1- JARDUNALDIEN AURKEZPENA

## 2- 2022ko ONDAREAREN EUROPAKO JARDUNALDIEN BALORAZIOA: Ondarea loratuz, gozatu! Patrimonio sostenible

## 3- 2023ko OEJ-ko GAIA: IDEIAK ETA IKUSPEGIAK

# ZER DIRA ONDAREAREN EUROPAKO JARDUNALDIAK?

**Zortzigarren urtez** jarraian, **2023eko udazkenean** Ondarearen Europako Jardunaldietara batuko da Gipuzkoa.

**Ondarearen inguruan** urri aldera izaten diren **ekitaldi multzo bat** dira jardunaldiak.

Europako Kontseiluak eta **Europako Batzordeak** 1999tik ospatzen dute ekitaldi hau Europako 50 herrialdetan.

**Euskadin**, hiru **foru aldundiek** bultzatzen dituzte, **Eusko Jaurlaritzaren** laguntzarekin.

Urtero **gai bat ardatz** hartuta **ekitaldi kultural ugari** antolatzen dira **ondarearen** inguruan: bisita gidatuak, lantegiak, emanaldiak, ikuskizunak, pista jolasak, erakusketak...

European Heritage Days
Journées européennes du patrimoine

# ZENBAKIETAN...

## 2016tik...

**18.416** PARTE - HARTZAILE

**579** EKITALDI

**+40** HERRI

**300** ERAGILE

**%95** BERRIRO PARTE HARTZEKO PREST

# ZER DIRA ONDAREAREN EUROPAKO JARDUNALDIAK?

**Helburuak:**

- Ondarea **pertsona guztiei zabaltzea**
- Ondarea **berdintasunez eta unibertsalki eskuratzea** sustatzea
- **Herritarrak kultur ondarearen garrantziaz sentsibilizatzea**
- **Ondarea gazteengana hurbildu** nahi duen **egitasmoa**
- Programan **eragile berriak** gehitzea

European Heritage Days
Journées européennes du patrimoine

# ZER DIRA ONDAREAREN EUROPAKO JARDUNALDIAK?

## Guztion arteko proiektua

**Edozein antolakundek, entitatek, elkartek edo herritarrek parte har dezake**, jarduera bat antolatuz oso **formatu desberdinetan** (ikuskizunak, antzezlanak, ezohiko bisitak, dastaketak, erakustaldiak, txangoak, bizikleta ibilaldiak...), **ondarea ezagutarazteko,** inguratzen gaituena ezagutzeko, eta, jasotako herentzia hori gozatzeko, garenak izatea eginarazten gaituena.

**Benetako protagonistak,** kultur eragile guztiak dira, **jarduera berezi hori edo horiek antolatzen animatzen direnak, alegia.**

European Heritage Days
Journées européennes du patrimoine

# ZER DIRA ONDAREAREN EUROPAKO JARDUNALDIAK?

## Zer da kultur ondarea?

Herri, **gizarte edo komunitate baten identitateak adierazten** dituzten adierazpide esanguratsuenak.

**Materialak:** Monumentuak, Monumentu-multzoak, eremu arkeologikoak edo paleontologikoak, Lorategi historikoak, Kultura-ibilbideak, Kultura-espazioak...

**Ez materialak:** ahozko tradizioak eta adierazpideak; hizkuntza barne, kultura-ondare immaterialaren hedatzailea den aldetik, eta toponimia. Bertsolaritza, Musika, Dantza, Emanaldi tradizionalak eta oroitzapenezkoak, Usadio sozialak. Gastronomia, Kirola, Jai-ekitaldiak, Naturarekin eta unibertsoarekin lotutako ezagutzak eta usadioak, Eskulangintzari eta industriari buruzko teknikak.

**Konplexua eta anitza**

European Heritage Days
Journées européennes du patrimoine

# ZERGATIK PARTE HARTU?

- Zuretzat **ezinbestekoa dena partekatzeko** eta tokiko ondarearen aitorpena sustatzeko
- **Gizarte harreman berriak** errazteko eta komunitateak sortzeko
- **Kultur eragileen komunitate aktiboan** sartzeko
- Zure antolakuntza berrikuntzaren bitartez hobetu, hau da, **formatu,** ideia eta esperientzia berriekin
- Zure proiekturako edo zentrorako **publiko berriak erakartzeko**
- Asebetetze maila handiko egitarau bat delako

European Heritage Days
Journées européennes du patrimoine

# ZER ESKAINTZEN DA?

Gipuzkoako Foru Aldundiak **programa sustatzen, koordinatzen, zabaltzen eta argitaratzen du,** Arabako eta Bizkaiko Aldundiekin elkarlanean, eta Eusko Jaurlaritzaren laguntzarekin.

**Koordinazioa:** Ondarearen Europako Jardunaldien Bulego teknikoa (K6 Gestión Cultural), Parte Hartzeko Gida

**Aholkularitza:** *Iñaki Arrieta irakasleak, EHU* (Euskal Herriko Unibertsitatea), ***Mondragon Unibertsitateko LEINN*** **graduko** lan taldeak (egitasmoa **gazteei** hurbiltzeko asmoarekin: webinaren bidez, aholkularitza saioen bidez, difusioa kanpaina…)



# ZER ESKAINTZEN DA?

**Difusioa:**

Online: ekimenaren webgunea (**[www.europako-ondarea.eus](www.europako-ondarea.eus)** )

**Gipuzkoako aktibitate guztiak Gipuzkoa Kultura webgunean** , Hedabideetan (aurkezpenaren prentsaurrekoa..)

**Offline**: katalogoa (10.000 ale)




European Heritage Days
Journées européennes du patrimoine

# DIFUSIOA: Hedabideak

**HITZA**

ALBISTEAK | AGENDA | KOMUNITATEA | MULTIMEDIA | ESKELAK / AGU

**BEREZIA** Iñaki Chivite (Eroski): «Duela bi urte ere Arigune izan ginen; oso gus

## Hosto ikastaroa, ondare jardunaldiekin hasteko

Legazpi — Gizartea

2022/10/13 — T. Madinabeitia

*Ondarea loratuz, gozatu!* lelopean Gipuzkoan egiten ari diren Ondarearen Europako Jardunaldiak Legazpira iritsiko dira igandean, Lenbur Fundazioaren eskutik. Foru Aldundiaren laguntzarekin, Lenburrek hiru ekintza antolatu ditu datozen asteetarako jardunaldi horien barruan, eta lehena, igande goizean egingo den *Hostoekin jolastu eta sortu* ikastaroa egingo da.

Mirandaola parkean eta Euskal Burdinaren Museoan egingo da tailerra, 11:00etatik aurrera, Nagore Bengoetxeak gidatuta. Zuhaitz hostoekin eskulan bat egingo dute partaideek. Lehenik, hostoak bilduko dituzte parkean, eta gero, museora joan eta kolore eta forma desberdinak nahastuz, apaingarria egingo dute hosto horiekin. Jarduera honen xedea haurrak naturarekin harremanetan jartzea da.

**HABLARADIO** SAN SEBASTIAN 92.9fm

INICIO | QUIENES SOMOS | PROGRAMAS | REAL SOCIEDAD | PUBLICIDAD | A LA CARTA



AUDIOS | EN EL RECREO

## De rechazo a patrimonio. Una tercera vida a los objetos

5 noviembre 2022 · by Redacción · 0 comments

El próximo 19 de noviembre Aranzadi nos propone una visita a su Laboratorio Etnográfico de Bidebieta.Allí nosmostrarán cómo trabajan y la labor de catalogación que llevan a cabo,mostrando también cómo realizan el proceso de patrimonialización de objetos que un día fuero rechazo y que en colaboración con Gordailua de Gipuzkoa, los convierten en lecciones para el futuro.

00:00 00:00

Ir a descargar

Albisteak | Kirolak | Telebista | Irratia | Besteak | ZUZENEAN

AMARAUNA - ARRANTZA

## Saregileak: "Sareak jostea garrantzitsua da, bestela arrantzaleak ez lirateke itsasora aterako"

Publikatuta: 2022/10/30 11:34 (UTC+1) Azken eguneratzea: 2022/10/30 21:07 (UTC+1)

**Saregileak kalera atera dira, egiten duten lanaren garrantzia ikustarazteko. Arrantzaleak itsasora ateratzen dira, baina ezinbestekoa da saregileek sareak konpontzea; gaur egun lan hori eskuz egiten baita. Soldata finkorik ez dute, orduka ordaintzen baitzaie.**



# DIFUSIOA: online

**Erakundeetako sare sozialetan promozioa eta iragarkiak**

@GipuzkoaKultura (7.081 jarratzaile)

@OndareaEuskadi  (7.900 jarratzaile)

@jep_euskadi (790 jarratzaile)




European Heritage Days
Journées européennes du patrimoine

# ZEIN DA PARTE HARTZEKO PROZESUA?




European Heritage Days
Journées européennes du patrimoine

# 2- 2022ko OEJen BALORAZIOA




Iraila - Azaroa 2022



GIPUZKOA KULTURA

European Heritage Days
Journées européennes du patrimoine

# Ondarea loratuz, gozatu! Patrimonio sostenible




**33** udalerri

**88** jarduera

**122** ekitaldi

**65** antolatzaile

**3.316**
parte-hartzaile

# Ondarea loratuz, gozatu! Patrimonio sostenible




Eskaini diren ekitaldi kopurua 2021ekoa baino apur bat txikiagoa izan den arren (**-%13**), ekitaldietako parte-hartzaile kopuruak gora egin du.

**+%27,62 pertsona gehiagok** gozatu zuten **Ondarearen Europako Jardunaldietako** ekitaldiez.

# 2022eko berrikuntzak




- **Irisgarritasun hobekuntzak**

Progama **PDF- irisgarrian. QR kodea brailez**

**Diseinu irisgarriagoa** (egutegia, testuen aurkezpena…)

- **Jasangarritasuna non txertatu da:**

Parte hartzeko **gidan**

Ekitaldi jasangarriak egiteko **aholkuetan**

Garapen Jasangarrirako **helburuak katalogoan**

# Difusioa

**Programa:** Eragileei egindako galdeketa baten ondoren, liburuxken banaketa %32 murriztu da, jasangarritasunarekin bat datorren kopuru egoki bat lortzeko.
Programa honela banatu zen:

**Banaketa:**

- Kultur etxeak
- Udalak
- Artxiboak
- Museoak
- Turismo bulegoak
- Elkarteak

**Instituzio webguneak**

[Kulturkilk]

[Gipuzkoa kultura]



# Difusioa

**Prentsa-oharrak eta prentsaurrekoa**:

Gaiaren aurkezpena eta antolatzailei deialdia (1)

Jardunaldien aurkezpena (1)

Kolaborazioa **Habla Radio-ko programa bereziekin**





Euskadi | europa press

Las VII Jornadas Europeas del Patrimonio de Gipuzkoa se centrarán en la sostenibilidad

el eje principal de las VII Jornadas Europeas del Patrimonio de Gipuzkoa. - DIPUTACIÓN

ASTIÁN, 12 Abr. (EUROPA PRESS) -

ción de las Jornadas Europeas del Patrimonio de Gipuzkoa, que tendrán
ctubre, se centrarán en la sostenibilidad, según han dado a conocer los
entos de Cultura y Medio Ambiente de la Diputación foral de Gipuzkoa.



HABLARADIO

INICIO | QUIENES SOMOS | PROGRAMAS | REAL SOCIEDAD | PUBLICIDAD | A LA CARTA

EL RECREO

Especial Jornadas Europeas del Patrimonio 4

27 octubre 2022 · by Redacción · 0 comments

Cuarto programa que emitimos dedicado a las Jornadas Europeas del Patrimonio que impulsa el Departamento de Cultura de la Diputación Foral de Gipuzkoa. Emitimos desde el Palacio Lili en Zestoa. Conocemos la historia del Palacio y de su dueña. Hablamos del Territorio Ekain, del territorio Elkano y del Flish que ha entrado en el top100 de los monumentos geológicos del mundo.

# Difusioa

- Ondarearen Europako jardunaldien webgunea

[www.europako-ondarea.eus](http://www.europako-ondarea.eus)

- Gipuzkoako programa , Bizkaia eta Arabakoekin batera zintzilikatu da .

● 2022an webguneak **2.185 erabiltzaile** izan zituen
● Webgune honetara jendea erakartzeko **Googlen iragarkiak** egiten dira



# Parte - hartzaileak

- Jardunaldietako parte-hartzaileen **%66,7 berriak izan dira**. Ehuneko hori goraka doa.
- Parte-hartzaileen **gogobetetze-maila oso altua** izan da. Izan ere, parte-hartzaile gehienek nota oso altuarekin baloratu dute jardueraren alderdi guztiak.



# Parte hartzaileak - adinak




2021ean baino **% 27,62 parte-hartzaile gehiago.**

2022ko **adin-tarteak mantendu** egin dira.

**Askotariko** adin-tarteak. **51-65** urte artekoak batez ere. 41-50 urte artekoen adin-tarteak gora egin du.

# Parte hartzaileak - nola ezagutzen dituzte aktibitatea?




**Nola ezagutzen dituzte jardunaldiak?**

Hainbat eratan: **%40a ahoz ahokoari esker**; horren ostean, webgunea, jardunaldietako **katalogoa** eta sare sozialeen bidez, nagusiki

# Antolatzaileen iritziak 2022ean

**Eragileen %100ak** errepikatuko luke.

**% 57,1ek ohikoak ez diren publikoen gorakada** nabarmentzen du, ekitaldietan iaz baino jende baino gutxiago,(irisgarritasuna). Lekua ezagutzen ez duten tokian tokiko interesatuak nabarmentzen dira.

Antolatzaileen **% 82ak nahi zuten publikoa** erakarri dute.

# 3- JEP 2023 GAIA: IDEIAK ETA IKUSPEGIAK

## ONDAREA BIZIRIK!
## Patrimonio vivo



# 2023ko ONDAREAREN EUROPAKO JARDUNALDIEN HELBURUAK

- **Gure ondarea bizirik** nola mantentzen den esploratzea:

  - Artisau-lanbideak

  - Kontserbatzeko eta zaintzeko teknikak

  - Zaintzen duten komunitateei esker

  - Memoria kolektiboa

- **Ondarea pertsona guztiei zabaltzea**

# NONDIK HASI? Lan-ildoaks

<u>**Komunitateak ondarea aktibatzen du**</u>

Komunitatea ondarearen eragile gisa aitortzeko aukera bat da: ondarea aitortu, zaindu, zabaldu, zabaldu eta transmititzen duen komunitate bat ezinbestekoa da ondarea bizirik mantentzen jarraitzeko, adibidez, **ahozko ondarea edo ondare immateriala.**



# NONDIK HASI? Lan-ildoak

**Kontserbazioa, babesa eta zaintza**

Ondarea bizirik mantentzen jarraitzeko egiten diren lan guztiak ezagutzea.

Badira **zaindari ikusezinak**, hartaz gozatzen jarrai dezagun arduratzen direnak: elkarteak, ondarea babesten duten legeak eta erakundeak: historialariak, etnografoak, zaharberritzaileak...)



# NONDIK HASI? Lan-ildoak

Memoria

**Ahozko memoria** lantzearen eta gordetzearen garrantzia.

Gu gara ondarearen memoriaren ekintzaileak eta eramaileak; **memoria kolektiboari balioa ematen diogunok,** ahozko memoria transmititzen dugunok…



Iturria: [Legorretan larunbatean aurkeztuko dute 'Hurrengo geltokia' ikus-entzunezkoa, gerra eta frankismoko oroimen kolektiboaren bilduma - Goierriko Hitza]

# NONDIK HASI? Lan-ildoak

**Ondare biziaren eragile aktiboak, lanbide tradizionalen garrantzia**

Artisauak, ondareak bizirik jarraitzea eta belaunaldiz belaunaldi transmititzea eragiten duten pertsonak.





Iturria: [Lur Kolektiboa]

# NONDIK HASI? AHOLKU BATZUK...

**Irisgarritasuna eta inklusioa**
2022ean egindako jarduerentzat **irisgarritasun neurriak** ezarri ziren eta urte honetan ildo beretik jarraituko da.


Iturria. Fuente: Noun project. https://thenounproject.com

**Ekitaldi jasangarriak**
Ekitaldiak garatzeko garaian jasangarritasun irizpideak jarraituko dira. 2022eko parte hartzeko gidan aholkuak aurkituko dituzue.

# NONDIK HASI? AHOLKU BATZUK...

**Aktibitate baterako ideia bat daukazu?**

2020ean argitaratu genuen parte hartze gida irakurtzea gomendatzen dizugu.

Ondarea ildo duen ekitaldi handi honetan parte hartzeko, bertan lagungarri izan ditzakezun informazioa eta aholkuak dituzu!



# NONDIK HASI? AHOLKU BATZUK...

**Adibidez,** pertsonen jakin mina bisitatzen ari diren tokiekin edo gaiekin **konexioak eta loturak** bilatuz piztu dezakezu.

Jakin-minak eta **esperientzia partekatuak** inguratzen gaituen aniztasunari buruz gehiago ikastera garamatza eta gure ondarea zaintzeko grina sustatu.

**Gure etorkizunaz** hausnartzeko aukera izan daiteke. Gure ondarearen zaintza gure etorkizunaren zirriborroa sortzeko balio dezake...



# NONDIK HASI? AHOLKU BATZUK...

## Elkarlanean indartsuagoak gara!

Askotan, beste elkarte/eragile batekin elkartzeak ezinezkoa izan zitekeen ideia bat aurrera eramateko baliogarria izan daiteke.

Beste **kolektibo batzuetara hurbiltzeak ezagutza ematen dizu:** kontsumo taldeak, ingurumena zaintzen duten pertsonak, birziklatze enpresak, energia garbia ekoitzen duten enpresak, elkarteak...



# ZEIN JARDUERA SORTU DITZAKEGU 2023KO OEJ-ETAN?
# Ideia batzuk...

**Lanbide eta jakintzak:**

XIX. mendeko jantziak egiteko tailerra: ahaztutako patroiak berreskuratzea.

Artisautza tradizionalari buruzko erakusketa.

Artisautza tradizionalaren aurkezpena etxeetako objektu tradizionalekin.



Iturria: Zumalakarregi Museoa

# ZEIN JARDUERA SORTU DITZAKEGU 2023KO OEJ-ETAN?
# Ideia batzuk...

## Lanbide eta jakintzak:

**Izan bitxigile egun batez!** Gazteentzako bitxigintza tailerra antola dezakezu material naturalekin.

Zenbait teknika erakutsi eta lepokoak, eskumuturrekoak edo eraztunak egiten lagundu iezaiezu, bitxigintzaren tradizioa belaunaldi berrietara helarazten diezun bitartean.




**Iturria:** DV, La joya de la corona está en Gipuzkoa

# ZEIN JARDUERA SORTU DITZAKEGU 2023KO OEJ-ETAN? Ideia batzuk...

**Moda tradizionalaren desfilea!**

Jantzi tradizionalekin moda desfile bat antolatu.

Betiko musika-tresnak jotzen dituzten musikariak pasarela gainera gonbidatu. Bidaiatu ezazu beste garai batera!



# ZEIN JARDUERA SORTU DITZAKEGU 2023KO OEJ-ETAN?
# Ideia batzuk...

**Nolakoa da gure ingurunea?**

Lekua definitzen duten tokiko paisaiari buruzko hitzaldia ematera geografo bat gonbidatu ,eta ondarea kudeatzeko ideia berritzaileak proposatu. Blog batean jaso ditzakezu!

**Zure amona jaio zen hiria eta zurea berdinak al dira?**

Tokiko iburutegiarekin mapa-tailer bat antolatu. Egin mapa bat eta alderatu urteetan zehar izandako aldaketak  begiratu eta egon diren bilakaerei buruz hausnartu!




**Iturria:** Museum Cemento Rezola

# ZEIN JARDUERA SORTU DITZAKEGU 2023KO OEJ-ETAN?
# Ideia batzuk...

**Erakutsi zure ohiturak!**

Gazteentzako bideo  lehiaketa bat planifikatu dezakezu, tokiko tradizioetan oinarrituta.

Parte-hartzaile guztiekin topaketa bat antolatu eta hautatutako bideoen emanaldi bat egin dezakezu.




**Iturria:** Ondarebizia

# NOLA BIDALI DEZAKET NIRE PROPOSAMENA?

**Gipuzkoa kultura webgunearen bidez**: jardueraren deskribapena, argazki eta antolatzaileen logoekin. Informazio hau aktibitate programa egiteko erabiliko da.



# NOLA BIDALI NERE PROPOSAMENA?

**Ekainaren 1era arte** Gpuzkoa kulturan dagoen formularioaren bidez: https://www.gipuzkoa.eus/eu/web/kultura/ondarea/proiektuak/europako-jardunaldiak/2022

Urte honetan **argazkiak eta logoak** webgunearen bidez bidaliko dira

Aktibitatea **zein lan ildorekin lotzen den zehaztuko da.** Proposamenaren deskribapena **bat etorriko da hautatutako lan-lerroarekin**

**Informazio elebiduna** bidaltzea: jarduera itxita badago

Ekitaldiak dituen **irisgarritasun neurriak** eta zein **gizarte kolektiborentzat** egokituta dagoen jarduera.

Ez bazaude ziur zure ekitaldia bidali duzula, edo arazoren bat duzu, bidali mezu elektroniko bat **gipuzkoa.oej@gipuzkoa.eus edo gipuzkoa.oej@gmail.com** helbidera.

# DATAK

**Jardueren proposamenak bidaltzeko epea:** 2023/04/21 - 2023/06/01

**Programaren garapena:** Ekaina - Uztaila (behin betiko testuak)

**Programa osoa jendaurrean aurkeztea** : 2023/09/01

**Ondarearen Europako Jardunaldiak:** Urrian gehien bat, irailean eta azaroan antolatzen diren ekintza batzuk onartuko dira.



# MILA ESKER!
# ¡MUCHAS GRACIAS!

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

ETORKIZUNA ORAIN
Es futuro

European Heritage Days
Journées européennes du patrimoine

# GALDERAK?

